# LIBURUTEGI HERRIKOIA HERRITARRENTZAT

LIBRERÍA URBANA PARA LA CIUDADANÍA




bookboxdonostia@gmail.com
665 711 289

**Book Box herritarrentzako liburutegi mugikor bat da eta, bertan, liburu, aldizkari, komiki eta fanzine erabiliak topatu daitezke, herritar guztientzat eskuragarri daudenak.**

**Erabilera herritarrentzat eta herriarena da; beraz, denon ardura izango da liburutegian liburuak eta bestelakoak uztea, ondoren beste edonork hauetaz gozatu dezan.**

**Book Boxek irakurketa sustatzeko asmoa du, partekatzearen ideia eta, bide batez, ahazturik edo erabili gabe dauden aleen berrerabilera bultzatuz.**




1. HELBURUAK

Helburu nagusia **liburuak berrerabiltzeko** kultura sustatzea da: proiektuarekin bat egiten duten herritarrek, elkarteek, liburutegiek, dendek eta abarrek lagatzen dituzten liburuak Book Boxen jasotzen dira eta edozein pertsonari ematen zaio horiek irakurtzeko aukera.

Hona hemen proiektuaren erronkak:
- **Irakurketa bultzatzea** inongo bereizketarik gabe, aleak edonori eskainiz.
- **Partekatzea, parte-hartzea, herritarren arteko laguntza eta ongizatea**, besteak beste, indartzea.
- **Jakintza** bultzatzea.
- **Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna** laguntzea.

Herritarrak ezinbesteko elementu aktiboak dira proiektu honetan. Haiek baitira ahaztutako liburuak utzi eta berrerabili behar dituztenak; guk horretarako tresna besterik ez dugu eskaintzen. Edozein herritarrek jo dezake Book Boxera, liburuak, aldizkariak komikiak eta abar uztera edo bertan daudenak hartzera. Horrela, ale horiek mugitzea eta zabaltzea lortuko da. Herritarrek berek ikusiko dute norbaitek zerbait eman ezkero, beste pertsona batek trukean ezer eskatu gabe zerbait jaso dezakeela.

2. ZERBITZU OSAGARRIAK

Book Box, doako liburutegi bat izateaz gain, hainbat **ekitaldi kultural** antolatzeko euskarri bat da ere. Hala, kulturaren sustapenaren alde apustu egiten duten erakunde eta negozioei zerbitzu hauek eskaintzen zaizkie:

- Liburuen aurkezpenak
- Zuzeneko irakurketak
- Musika zuzenean
- Solasaldiak








Ekitaldi horietan, gonbidatzen diren diziplina ezberdinetako artista eta sortzaileek (idazleak, marrazkilariak, poetak, musikariak, ilustratzaileak…), Book Boxekin zuzenean kolaboratzeaz gain eta proiektuari babesa emateaz gain, agenda kultural erakargarri bat sortzen laguntzen dute.

bookboxdonostia@gmail.com 665 711 289

3. BOOK BOXaren ESKAINTZA

Book Boxa leku edota inguru desberdinetan jartzeko diseinatu eta pentsatu da, **herritar guztiei irakurketaz gozatzeko aukera emateko**. Gure asmoa da proiektuak aurrera egitea eta presentzia gehiago izatea, ahalik eta pertsona gehienek gozatu dezan.

Book Boxek honako onura hauek dakartza:
- Ematen den zerbitzuaren osagarri gisa, erabiltzaile/bezeroei **doan irakurtzeko** aukera eskaintzea.
- **Liburuak partekatzeko gune bat sortzea**, erabiltzen ez diren aleen zirkulazioa eta erabiltzaileen trafikoa eraginez.
- Ekitaldi kulturalak egiten dituzten **artistekin topaketak** antolatzea, erabiltzaile berriak erakartze aldera.
- Book Boxa altzari bat da; hortaz, **gelak dekoratzeko** balio du. Era berean, badago aukera enpresaren edo zerbitzuaren logoa, irudia edota esaldiak gainean grabatzeko.

Book Box bezalako zerbitzu bat eskaini nahi duten pertsona edo erakundeen baldintzetara (teknikoak, ekonomikoak, espazialak…) moldatu gaitezke. Horregatik, zure beharretara egokitutako eskaintza pertsonalizatu bat egingo dizugu, eskaintzen ditugun aukera desberdinak oinarri hartuta:

- BOOK BOX (Altzaria)
  - EROSTEKO AUKERA (Altzaria zurea izango da)
  - ALOKATZEKO AUKERA (Denbora batez edo ekitaldi puntualetarako)

- ALTZARI BARRUKO ALEAK (Liburuak, aldizkariak, komikiak…)
  - BERRELIKATZEKO AUKERA (Erabiltzaileen ardura izango da aleak uztea)
  - ALDIZKA BETETZEKO AUKERA (Kudeatzaileek eramango dituzte aleak)

- EKITALDI KULTURALAK (Artistekin topaketak egitea)
  - EKITALDI PUNTUALAK (Momentu jakin bat dinamizatzeko)
  - ALDIZKAKO EKITALDIAK (Adibidez, hilero programatutako ekitaldiak)

Proiektuari buruzko informazio gehiago behar baduzu, Book Box bat edo beste zerbitzuren bat eskuratu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:

E-maila: bookboxdonostia@gmail.com
Telefonoa: 665711289
Facebook: /bookboxdonostia
Twitter: @bookboxdonostia

## 4. JATORRIA

Book Box Markel Elizaldek eta Jorge Pinedak diseinatu eta garatutako proiektua da. Hirikilabs kultura digital eta teknologia laborategian jaio zen eta, gaur egun, Kutxa Kultur Enean garatzen ari da.

Hirikilabsek 2015ean antolatu zuen Diseinu irekiko altzarien prozesuan parte hartu ostean, proiektua diseinatzen jarraitzeko aukera izan genuen. Nor gara?
**Markel Elizalde** Publizitate eta Harreman Publikoak ikasten ari da, ikus-entzunezko hainbat eduki sortu ditu eta autogestionatutako hainbat proiektu (Letamen Gaztetxea, Uliako Lore Baratzak, Donostiako Piratak…) kudeatzen ditu.
**Jorge Pineda** JP Arquitecturako arkitektoa da, hirian esku-hartzeak egitera bideratu du bere ibilbidea, eta altzarien diseinua, ahaztutako espazioen berrerabilera, arkitektura jasangarria, herritarren parte-hartzea, hiri-artea eta abar interesatzen zaizkio.



Diseinuarengatik soilik nabarmenduko ez zen altzari bat diseinatu nahi genuen; konturatu ginen beste zerbait nahi genuela. Azkenean, erabaki genuen **hiri-altzari bat** eta, horren harira, proiektu bizidun bat sortu nahi genuela. Hainbat aukera aztertu eta kontsultak egin ostean, diseinu originaleko hiri-liburutegi praktiko eta funtzional bat sortzeari ekin genion.

Book Box txopozko egurrez egindako kaxa mugikor bat da, erraz erabili eta garraiatu daitekeena. Halaber, altzaria liburu, komiki, aldizkari eta fanzine dezente gordetzeko edukierarekin diseinatu dugu.

**Book box es una librería urbana móvil que contiene libros, revistas, comics, fanzines... usados y que está a entera disposición de cualquier ciudadano.**

**Su correcta utilización es por y para los ciudadanos, siendo ellos mismos los que ceden ejemplares para su posterior lectura por nuevos usuarios.**

**Book box pretende fomentar la lectura acercando los libros a todas las personas y generando una cultura de compartir y reutilizar aquellos ejemplares olvidados o en desuso.**




1. OBJETIVOS

El objetivo de este proyecto es generar una cultura de **reutilización de libros**, recogiendo en el mismo mueble ejemplares usados de particulares, asociaciones, bibliotecas, librerías, tiendas... que decidan contribuir con el proyecto, y dejarlos a disposición de cualquier ciudadano para que vuelvan a ser leídos. Cualquier usuario es libre de coger uno o varios ejemplares y disfrutar de su lectura in situ o llevárselo consigo.

Los retos de este proyecto son:
-**Fomentar la lectura** facilitando ejemplares a cualquier persona sin ningún tipo de distinción.
-Reforzar valores como el **compartir, la participación y colaboración ciudadana** y el bien común
-Promover el **conocimiento**
-Intervenir en la **diversidad lingüística y cultural**.

Los ciudadanos son la parte activa y necesaria en este proyecto. Son ellos los que deben compartir y reutilizar esos libros olvidados, nosotros solo ponemos la herramienta para hacerlo. Cualquier ciudadano podrá acceder a Book Box y depositar o retirar libros, revistas, comics... para así crear un movimiento y difusión de dichos ejemplares. Son los propios ciudadanos los que verán que, si alguien da, otro puede recibir sin pedir nada a cambio.

2. <u>SERVICIOS ADICIONALES</u>

Book Box, además de funcionar como librería gratuita, es un soporte en torno al cual se organizan **diversos eventos culturales** que se ofrecen como servicio a instituciones y negocios que apuestan por una diferenciación a través del fomento de la cultura:

-Presentaciones de libros
-Lecturas en vivo
-Cuentacuentos
-Música en directo
-Charlas coloquio









En estos eventos, los artistas invitados de diferentes disciplinas (escritores, dibujantes, poetas, músicos, ilustradores…) ayudan a generar una agenda cultural atrayente para los usuarios, aparte de colaborar directamente con Book Box y apoyar el proyecto.

bookboxdonostia@gmail.com
665 711 289

3. OFERTA DE BOOK BOX

Book box está diseñado y pensado para que funcione en diferentes lugares o entornos y poder así **acercar la lectura a cualquier ciudadano**. Nuestra intención es que este proyecto crezca en número y en presencia y pueda ser disfrutado por la mayor cantidad de gente posible.

Los beneficios que ofrece contar con Book Box son:

-Poder ofrecer a sus usuarios/clientes una **lectura gratuita in situ** como servicio adicional al principal.

-Crear un **punto habitual de intercambio de libros** originando así una circulación de ejemplares que estaban en desuso y generando un tráfico de usuarios

-Disponer de **encuentros con artistas** que generan eventos culturales para incluirlos en su agenda y atraer así a nuevos usuarios

-Book box es un mueble y funciona como tal, por lo que sirve para **decorar estancias**, pudiendo tener, en parte, diseño propio (logo, frase, grabado…)

Para poder llegar a todos, queremos adecuarnos a las diferentes posibilidades (técnicas, económicas, espaciales…) que puedan tener aquellas personas o instituciones que quieran apostar por tener un servicio como el que ofrece Book Box. Y por eso creemos en una oferta personalizada y adecuada a sus necesidades, dentro de las diferentes opciones que ofrecemos:

- BOOK BOX (Mueble)
  - -OPCIÓN VENTA (El mueble es su propiedad)
  - -OPCIÓN ALQUILER (Por tiempo estimado o por eventos puntuales)

- EJEMPLARES DENTRO DEL MUEBLE (Libros, revistas, comics…)
  - -RETROALIMENTACIÓN (Los ejemplares dependen de sus usuarios)
  - -RELLENOS PUNTUALES (Se aportarán ejemplares por nuestra parte)

- EVENTOS CULTURALES (Encuentros con artistas)
  - -EVENTOS PUNTUALES (Para dinamizar un momento puntual)
  - -EVENTOS PERIÓDICOS (Eventos programados, por ejemplo, mensualmente)

Si deseas conocer más sobre el proyecto o estás interesado en adquirir un Book Box o alguno de sus servicios, no dudes en ponerte en contacto con nosotros.

Correo: bookboxdonostia@gmail.com
Teléfono: 665711289
Facebook: /bookboxdonostia
Twitter: @bookboxdonostia

## 4. ORIGEN

Book box es un proyecto creado y diseñado por Markel Elizalde y Jorge Pineda. Nació en Hirikilabs (laboratorio de cultura digital y tecnología) y actualmente se está desarrollando dentro de la comunidad de Kutxa Kultur Enea.

Después de participar en el proceso de Diseño Abierto de mobiliario de 2015 organizado por Hirikilabs, tuvimos la oportunidad de continuar diseñando. Nos quedamos como generadores del proyecto **Markel Elizalde** (estudiante de 2º bachillerato, parte activa en proyectos de autogestión como Intxaurrondoko Gazte Asanblada, Letaman Gaztetxea, Uliako Lore baratzak, Donostiako Piratak… Ocupado en generar contenido audiovisual y fotográfico) y **Jorge Pineda** (arquitecto en JP arquitectura, encaminado hacia el ámbito de las intervenciones urbanas y con intereses de diseño de mobiliario, reutilización de espacios olvidados, arquitectura sostenible, participación ciudadana, arte urbano…) Nuestra primera intención fue la de crear un mueble que no solo destacara por su diseño, tenía que ser "algo más".




Llegamos a la conclusión de que queríamos diseñar una pieza de mobiliario urbano y que la creación del mismo generase un proyecto vivo a su alrededor. Tras un tiempo de investigación y consulta decidimos generar un mueble que funcionara como **librería urbana,** y que fuera funcional, práctica y con un diseño original.

La librería es un mueble móvil de madera de chopo con forma de caja, de fácil apertura y transporte. Diseñado para albergar una cantidad considerable de libros, cómics, revistas, fanzines..., con facilidad de desplazamiento y con un sistema sencillo de apertura y cierre.

Liburutegi herrikoia herritarrentzat _ **BOOK BOX** _ Librería urbana para la ciudadanía


















bookboxdonostia@gmail.com 665 711 289